

OROIMENAREN HEGALDIA

Ordulariaren orratzekin estropezu egin zenuenetik, ez dakizu bizarra nola ebaki, ez eta hura zer den ere. Agidanez, memoriaren gurpilean katigatu zara, balaztaren premiaz.

Gaur ere, zigarroa ezpainetan, atzera aldaratu zara ketan, hutsari itaunketan, nola koskortu zaren hain gazte eta nor ote garen. Lantzean behin, pertsonen izenek konortea galtzen dute eta orainaren egarri izaten zara; momentuan gertatzen denaz ohartzeko. Ganbara zokoan pasa den guztia txukuntzeko eskatzen didazu, ez baitzaizu bidezkoa iruditzen baimenik gabe zure burmuinean norbait sartu eta biltegian kuxkuxean ibiltzea. Eta begi bakarrez begiratzen diezu bidaian maleta lapurtzen dizutenei. Berebiziko herra diezu orainaren ebasleei. Denboraren hondar aleak haizeak hanka puntetan eraman dituela pentsatzen duzu eta zure bizitza basamortu bihurtu dela harea horrekin.

Bada garairik, non eta gaztaroa eta zahartzaroa elkarrekin eskutik helduta doazen. Bada arorik, noiz eta fantasiak bere ezkutuko lekua bilatzen duen basamortuan, oasia bere eginez. Ni zurekin eta zu nirekin. Nik bidaiak amesten ditut eta zuk nostalgia bidaiatzen duzu. Eta lipar honetan, gau eta egun zapi zati bera izan garela jakin dugu, baina hari ezberdinarekin josia.

Eta honela kontsumitzen zaizkizu egunak, nik ekarritako gomutaren argi-indarrarekin. Trenaren azken geltokia tokiz aldatzen ahalegintzen naiz . Zure egunerokotasuneko kidea naiz. Konpainia ez baita zaharren zerbitzaria, bidaiatzeko premiazko maleta baizik. Ibilaldiko oztopoetatik babesten duena. Lagun hurkoa, gidaria, bidelaguna.

Eta nik zurekin bidaiatzeko apeta dut. Nire begiek ikusi ez zuten hori bizi izan nahi dut, zure begiek orain begiesten ez duten hori ikusiko duten gisan. Belaunaldiek bat egin dute. Segundoak orratzen atzean ostendu dira nonbait eta une oro idazten dut zure oraina, nire begiekin irakur dezazun. Eta momentu oro, zurekin bidaiatzen dut iraganera. Oroitzea birritan bizitzea delako.

Sara Aramburu Lasa

(Facultad de Letras, UPV/EHU)